



**Gipuzkoako Foru Aldundia**  
**Diputación Foral de Gipuzkoa**

Garapen Iraunkorreko Departamentua  
Departamento de Desarrollo Sostenible



## Ekintza Planen Ezarpen-mailen ebaluaketei laguntza Programa

---

# GOIERRIKO TOKIKO AGENDA 21aren EKINTZA PLANAREN EXEKUZIO-MAILAREN EBALUAKETA

2007 Abendua

LAGUNTZA TEKNIKOA:





Goierriko Tokiko Agenda 21eko Ekintza Planaren ezarpen-mailaren ebaluazio prozesuaren datuak:

**FINANTZIAZIO PROGRAMA:**

Gipuzkoako Foru Aldundiko Garapen Iraunkorrerako Departamentuak bultzatutako Ekintza Planen exekuzioaren ebaluaketarako 2007 Laguntza Programaren barruan garatutako prozesua.

**ERABILITAKO METODOLOGIA:**

UDALSAREA 21aren markoan garatu eta adostutako metodologia:

- o Euskadiko udaletan Tokiko Agenda 21-en ekintza planen urteko programaziorako eta ebaluaziorako gida metodologikoa
- o TA21-eko ekintza Plana kudeatzeko MUGI 21 tresna informatikoa

**ZUZENDARITZA FAKULTATIBOA**

Gipuzkoako Foru Aldundiko Garapen Iraunkorrerako Departamentua

Aitor Lekuona. Ingurugiro T.

Iraunkortasun Atala

**AHOLKUARITZA TEKNIKOA**

**MINUARTIA ENEA**

Ainhoa Gea. Industria Ingeniaria. Koordinaketa.

David Pon. Ingurumen Zientzietan Lizentziatua

Eider Larrañaga. Biologian Lizentziatua

Iker Zubimendi. Biologian Lizentziatua

Marta Renau. Ingurumen Zientzietan Lizentziatua

Susana Torregaray. Geologian Lizentziatua

Yajaira Vázquez. Ingurumen Zientzietan Lizentziatua

**Goieki**

**Prozesuaren koordinazioa:**

Iker Galparsoro .Zuzendaria

Iker Azurmendi. Tokiko Agenda 21eko Koordinatzailea

**Parte hartu duten eragileak:**

Nikolas Osinalde. Goitur-eko zuzendaria

Maialen Sanchez. Inkubategiko arduraduna

Nikolas Errasti. Zerbitzualdeako arduraduna

Laida Plazaola. Gizarte arloko arduraduna

<b>1. SARRERA .....</b>	<b>1</b>
1.1 AURREKARIAK ETA ESPARRUA .....	1
1.2 PROZESUAREN HELBURUAK TOKIKO ESPARRUAN.....	1
1.3 LAGUNTZA PROGRAMAREN HELBURUAK LURRALDE ESPARRUAN.....	2
1.4. ESKUALDEKO TOKIKO AGENDA 21-EKO EKINTZA PLANAREN KARAKTERIZAZIOA.....	3
<b>2. PROZESUAREN DESKRIBAPENA .....</b>	<b>4</b>
2.1 TA21 EKINTZA PLANEN KUDEAKETA .....	4
2.3 EKINTZA PLANAREN EXEKUZIOAREN EBALUAKETARAKO ETA URTEKO PROGRAMAZIOARAKO METODOLOGIAREN DESKRIBAPEN SINTETIKOA.....	7
<b>3. TOKIKO AGENDA 21EKO EKINTZA PLANAREN EZARPEN MAILARI BURUZKO EBALUAZIO PROZESUAREN EMAITZAK .....</b>	<b>13</b>
3.1 PLANAREN EZARPEN-MAILA URTEKA .....	13
3.2 ILDO ESTRATEGIKOEN ARABERAKO EXEKUZIO-MAILAREN ANALISIA .....	16
3.3 EBALUAKETA PROZESUTIK ABIATUTA PLANA EGUNERATZEA.....	18
EKINTZA BERRIAK: ONARTU ONDOREN PLANEAN SARTUKO DIREN EKINTZAK.....	18
BIRFORMULATUTAKO EKINTZAK.....	18
BIKOIZTUTAKO EKINTZAK .....	18
3.4 EKINTZA PLANAREN EXEKUZIOAN INPLIKATUTA DAUDEN ERAGILEEK IZAN DUTEN ERAGINA .....	19
3.5 BARNE KOMUNIKAZIOARAKO TRESNA ETA DINAMIKA.....	19
3.6 HERRITARREN PARTE- HARTZEA SUSTATZEKO TRESNA ETA DINAMIKA.....	19
<b>4. EMAITZEN LABURPENA ETA ONDORIO NAGUSIAK .....</b>	<b>20</b>
<b>5. EKINTZA PLANAREN EXEKUZIOAREN EBALUZIOA BURUTU ONDOREN AURRERA ERAMAN BEHARREKO PROTOKOLOAK.....</b>	<b>23</b>
5.1 EKINTZA PLANAREN EZARPEN-MAILAREN EBALUAZIO PROZESUAREN ONDORIOZ PROPOSATUTAKO EKINTZA PLANEKO ALDAKETAK UDAL BATZORDEAN ONARTUAK IZATEKO EKINTZA PROTOKOLOA.....	23
5.2 DATUAK GORDETZEKO SEGURTASUN PROTOKOLOA.....	26

## **IRUDIEN AURKIBIDEA**

Irudia 1 Tokiko Agenda 21 prozesuaren eskema.....	4
Irudia 2 TA21-eko Ekintza Planen loturiko diseinu eta ezarpen ezaugarriak .....	5
Irudia 3 TA21-eko Ekintza Planaren urteroko kudeaketa zikloa .....	6
Irudia 4 Ekintza Planaren ezarpen-mailari buruzko ebaluazio prozesuaren fase desberdinen oinarritzko eskema.....	9

## **TAULEN AURKIBIDEA**

Taula 1 Ekintza Planaren karakterizazio laburra .....	3
Taula 2 Ekintza Planen exekuzioaren ebaluaketan parte-hartzen duten eragileen rolen esleipena laguntza integratuan.....	8
Taula 3 Aurreikusi gabeko ekintzen zerrenda .....	18
Taula 4 Prozesuaren ondorioz birformulatutako ekintzak .....	18
Taula 5 Bikoiztuta kontsideratu diren ekintzen zerrenda .....	19
Taula 6 Eraitzen laburpena eta balorazioa .....	22
Taula 7 Dagokion udal batzordean ebaluazio prozesuaren ondorioz identifikatu diren aldaketak onartzeko protokoloa.....	25

## **GRAFIKOEN AURKIBIDEA**

Grafikoa 1 Ekintza Planaren Exekuzio-maila urtearen arabera.....	13
Grafikoa 2 Eskualdeko eta Gipuzkoako TA21-en Ekintza Plana 25 Udalen datuetatik abiatuta ..	14
Grafikoa 3 Ekintza Planaren exekuzio-egoera ebaluatutako azken urtean (2007) .....	15
Grafikoa 4 Ekintzen exekuzio-maila exekuzioa hasi zenetik 2007 arte .....	15
Grafikoa 5 Ildo Estrategikoen araberako exekuzio-maila .....	17

## 1. SARRERA

### 1.1 Aurrekariak eta esparrua

Gipuzkoako Foru Aldundiak, Garapen Iraunkorrerako Departamentutik abiatuz, tokiko iraunkortasunari buruzko informazio eguneratua izatea baimenduko duen markoa ezarri eta Tokiko Agenda 21 prozesuetan murgilduta dauden udalerrien behar eta eskaerei zerbitzu ematea helburu duen **Gipuzkoako Tokiko Iraunkortasunaren Behatokiaren** proiektua jarri du martxan.

Behatoki honen testuinguruan, TA21en Ekintza Planen urteroko ebaluaketarako Laguntza Programa bat martxan jartzea planteatu zen 2005ean. 2007an Programa berriro eskaintzen zaie TA21aren prozesu sendoak dituzten udalerriei, modu honetan, urtero eskaini nahi den eta sendotzeko asmoa duen udalentsako laguntza Programa bat sortuz.

Argi dago, Gipuzkoako udalerrri bakoitzak, Tokiko Agenda 21eko prozesuetan duen egoeraren eta udalerrriaren tipologiaren arabera behar desberdinak dituela. Hori dela eta, Ingurugiro Zuzendaritzako Iraunkortasun Ataletik udalerrri eredu bakoitzari erantzun aproposa emango dien tresnak diseinatzen ari dira.

### 1.2 Prozesuaren helburuak tokiko esparruan

Ekintza planen ezarpen-mailaren ebaluazio prozesuaren helburu nagusia, Planeko ekintza bakoitza burutzeko gauzatu diren jardueren ezagutza zehatza izatea da eta urtez-urte, Plana udalerrian onartu zenetik ekintza planaren ezarpen-mailari buruzko emaitza numerikoak azaltzen ditu. Helburu espezifikoak honakoak dira:

- Urteen nahiz udalerrien arteko konparazioak eginez, aldizka neurtzea eta ekintza planaren ezarpen-maila **ebaluatzea**, udalerria globalki hartuta.
- Ebaluazioan oinarrituta, ekintza planaren ezarpenean agertzen diren **ahulezia eta indar- gune** nagusiak identifikatzea, kontuan hartuz ekintzen tipologia, eragileak eta plana hobetzeko balio lezaketen beste aldagai batzuk
- Neurketan eta irizpide teknikotan oinarrituz, urtero edo bi urtetik behin ekintza planaren edukiak eguneratzea edo aldatzea

- Plana definitu zeneko ezagutza zehatza izatea eta planaren ezarpen egokia eta garaizkoa blokea dezakeen edozein **definizio gabeziak zuzentzeko** aukera izatea
- Modu argi eta objektiboan, ebaluazioa burutzen ari den momenturarte gauzatu diren **jardueren bilketa**, beste modu batean osotasunean ezagutzeko aukera egongo ez litzatekeena
- Planaren ezarpenean **udal eragileen inplikazio maila ezagutu**
- Plana zenbat burutu den jakitea eta **informazio hori herritarrei ematea**, eragile ekonomiko eta sozialei eta, bereziki, planaren diseinuan parte hartu dutenei edo/eta planaren jarraipenean parte hartzen ari direnei
- Barne hausnarketa prozesua dinamizatu, bertan Tokiko Agenda 21eko koordinatzailea ez den bestelako eragileak inplikaturik eta partaide diren prozesua gerturatuz
- Ekintza Plana hurrengo urterako **programatzea**, parte-hartzen duten eragile desberdinek jadanik aurreikusita dituzten jarduerak kontutan hartuz

### 1.3 Laguntza Programaren helburuak Lurralde esparruan

Foru Aldundiko Garapen Iraunkorreko Departamentutik TA21 prozesu sendoenak dituzten udalerriei Programa hau eskaintzen zaie, ondorengo helburuak dituelarik:

- Programan parte-hartzen duten udalerrri guztien exekuzio-mailaren batez besteko datuak eskaini Udalei, beraien emaitza propioak kontestualizatu ditzaten ebaluaketa prozesuetatik ondorioztatzen diren datuak aztertzerakoan.
- Tresna desberdinak diseinatzea Ingurumen Zuzendaritza Nagusitik, udalerriek beraien tokiko iraunkortasun prozesuak erabat garatu ditzaten.
- Ekintza Planen ezarpen-maila ahal den modu objektibo eta sistematikoenean ezagutzea, eta, era berean, erabat garatzeko aurkitzen diren zailtasunen berri izatea.
- Tokiko Agenda 21aren ezarpen eraginkorrean laguntzea beraz

#### 1.4. Eskualdeko Tokiko Agenda 21-eko ekintza planaren karakterizazioa

Jarraian, txosten honetan agertzen diren emaitzen datuak modu objektiboan aztertu ahal izateko, Goierriko Ekintza Planaren oinarritzko datuen aurkezpena egiten da:

ESKUALDEA:	GOIERRRI
Ebaluatu den Ekintza Planaren ordena	1goa
TA21eko Ekintza Planaren onarpen data:	2005eko abendua
Ekintza Plana onartu zuen organoa:	ADMINISTRAZIO KONTSEILUA
UDALSAREA 21eko sarrera urtea:	Ez dagokio
MUGI 21 programa erabiltzen hasi zireneko urtea:	2006
Prozesu honetan ebaluatu diren urteak:	2006 eta 2007
Totalean ebaluatu diren urteak	2006 eta 2007
Ekintza kopuru totaletik, ekintza jarraituen kopurua (%) <sup>1</sup> :	29%

Taula 1 Ekintza Planaren karakterizazio laburra

Nahiz eta Goierriko Ekintza Plana formalki 2005eko abenduan onartu, ezarpenaren lehen urte bezala, 2006. urtea hartzen da kontutan.

---

<sup>1</sup> Ekintza Planeko ekintzak eta ekintza jarraituak zenbatzean, ez dira kontutan hartzen ekintza berriak.

*Ekintza Jarraituak:* Ekintza planaren ezarpenaren urte guztietan zehar garatu beharreko ekintzak dira edota maiztasun batez garatu beharrekoak.


## 2. PROZESUAREN DESKRIBAPENA

### 2.1 TA21 Ekintza Planen kudeaketa

Tokiko Agenda 21 prozesuak ondoko irudian aurkezten diren lan faseetan garatzen dira: (I) Martxan jartzea, (II) Diseinua (diagnostikoa eta plangintza barne dituela) eta (III) ezarpen eta jarraipena. Azken hau nahiko aurreratua aurkitzen denean errebisio bat egiten da, diagnostikoa eguneratuz eta Plan berri bat eginez.

Irudian aurkezten den moduan, TA21-aren ezarpenak bi tresna osagarri erabiltzen ditu prozesuaren jarraipena egin ahal izateko:

- **Ekintza Planaren exekuzioaren urteroko ebaluaketa:** Ekintzak burutzeko (Planaren ekintzak) hartutako konpromisoen betetze maila ebaluatzerazuzendua.
- **Tokiko Iraunkortasun Adierazleen kalkulua:** Udalerria hobetzeko helburuak bete diren ebaluatzerazuzendua (Planaren iraunkortasun helburuak eta, orokorrean, Aalborg-eko konpromisoak).



I

#### Irudia 1 Tokiko Agenda 21 prozesuaren eskema

*Iturria: Euskadiko udaletan Tokiko Agenda21-en ekintza planen urteko Programaziorako eta Ebaluaziorako gida metodologikoa*

4

Bai diseinu fasean eta baita ondorengo Ekintza Planaren ezarpen fasean ere Ekintza Planek ondorengo ezaugarriak betetzea ahalegindu beharko litzateke: **iraunkorrak, estrategikoak, zeharkakoak, parte-hartzaileak eta operatiboak** izatea, ondoren definitzen den moduan:



## Irudia 2 TA21-eko Ekintza Planei loturiko diseinu eta ezarpen ezaugarriak

*Iturria: Euskadiko udaletan Tokiko Agenda21-en ekintza planen urteko Programaziorako eta Ebaluaziorako gida metodologikoa*


Azken urteetan argi geratu da Tokiko Agenda 21-en ezarpen eraginkorrak beharrezkoa duela Plana (hainbat urtetarako eskalan planifikatuta dagoena) programazioarekin eta udal kudeaketarekin lotzea (ohikoa denez urtero edo eskala laburrago batean eginda). Beharrezkoa da beraz jarduera mugarri hurbil eta zehatzak ezartzea Planaren aplikazio zehatz eta agerikoa baimenduko dutenak.

Testuinguru honetan, bereziki aproposa dirudi Ekintza Planaren urteroko kudeaketa bat ezartzea, urtero iraunkortasun helburuen (iraunkortasun adierazleak) lorpenaren eboluzioa eta TA21-eko burututako jarduerak (Planaren exekuzioaren ebaluaketa)

baloratu eta komunikatzea baimenduz eta datorren urtean garatuko diren jarduerak erabakiz (urteroko Planaren programazioa) ahal den neurrian udal aurrekontuei estekatuta.

Urteroko Ekintza Planen ebaluaketa eta programazioak lehen aipatu diren eta indartu behar diren ezaugarri onuragarri horiek Planetan txertatzea errazten du, bereziki udaleko zerbitzu desberdinen inplikazioan eraginez (**zeharkakoa**), Ekintza Plana eguneroko udal kudeaketara erantsiz (**operatiboa**) eta parte-hartze egiturak bermatuz (**parte-hartzailea**). Hiru alderdi hauek, Tokiko Agenda 21-aren ezarpenean faktore nagusiak direnak, era berean prozesu hauetan identifikatu diren zailtasun nagusiak dira.

Ondoko irudian hiru prozesuen arteko harremana eta denboran zehar nola garatzen diren adierazten da:



**Irudia 3** TA21-eko Ekintza Planaren urteroko kudeaketa zikloa

*Iturria: Euskadiko udaletan Tokiko Agenda21-en ekintza planen urteroko Programaziorako eta Ebaluaziorako gida metodologikoa*

### 2.3 Ekintza Planaren exekuzioaren ebaluaketarako eta urteko programaziorako metodologiaren deskribapen sintetikoa

Dokumentu honen sarreran azaldu den modura, Ekintza Planaren exekuzio-maila neurtzeko erabili den metodologia, Udalsarea 21eko Batzorde Teknikoan garatu eta frogatu zen. Euskarri moduan, MUGI 21 tresna informatikoa eta Udalsarea21-eko idazkaritza teknikoak argitaratutako den Gida Metodologikoa erabiltzen ditu.

4. Irudian modu grafikoan ikus daitekeenez, prozesu hau gauzatzeko hainbat lan zehazten dira eta, da Ekintza-Planaren exekuzioan parte-hartzen duten **udal zerbitzu guztien** inplikazioa eta **ebaluatzaile** lanak betetzen dituen kanpo aholkularitza taldearen parte-hartzea eskatzen du.

Prozesuan parte-hartzen duten eragileak ondoren aurkezten direnak dira bakoitzak betetzen duen rola deskribatzen delarik.

Laguntza motaren arabera, udal koordinatzaileek eta kanpoko laguntzak bete behar dituzten funtzioak aldatu egiten dira. Programan lehen aldiz parte-hartzen duten eta, ondorioz, lehen ebaluaketa egiten duten udalen kasuan **laguntza integratua** jasotzen dute. Aurreko urteetan Ekintza Planaren exekuzioaren ebaluaketa gauzatu duten udalen kasuan **laguntza sinplifikatua** jasoko dute.

Kasu honetan, ebaluaketa prozesua egiten den lehen urtea denez, eragile bakoitzaren rolak ondorengoak dira:

ERAGILEA	DEFINIZIOA	ROLA
PROZESUAREN KOORDINATZAILEA	Tokiko Agenda 21-en kudeaketarako Udal arduradun teknikoa	Prozesu osoa erraztea eta sustatzea. Prozesuan inplikaturako eragile multzoaren komunikazioa, laguntza eta jarraipena. Programazio txostena egitea Udalsarea 21-ekin eta kanpoko ebaluatzailearekin komunikatzea

ERAGILEA	DEFINIZIOA	ROLA
IMPLIKATUTAKO ERAGILEAK	Udaleko, udaleko enpresetako edo eskualdatutako udal kompetentziak dituen eskualdeko erakundeetako Ekintza Planaren exekuzioan inplikaturik dauden teknikari edo kargu hautetsiak	Ekintza Planari lotuta egindako jarduera guztien identifikazioa. Integratutako eta ebaluatutako jardueren geroko balidazioa. Planera lotuta egin beharreko jardueren formulazioa eta dagokien kostua.
EBALUATZAILEA	Prozesua ebaluatzeko bereziki esleitutako teknikaria; lan horretarako gaitasun bereziak izan behar ditu eta ebaluaziorako irizpideen aplikazioan zein prozesuaren aplikazioan orokorrean homogenotasuna bermatzeko gai izan behar da. Funtzio hau Udal Teknikariak egin dezake baina hobe da kanpoko eragile bat izatea	Prozesuaren koordinatzaileari laguntza metodologikoa ematea. Laguntza ematea prozesuaren hasierako aurkezpenean eta bukaerako emaitzen aurkezpenean, eragileei irizpideak emateko Dokumentuen eta MUGI 21-en inguruko informazioaren kudeaketa. Ekintzen exekuzio-mailaren ebaluazioa gidan ezarritako irizpideen arabera Emaitzen txostenaren tratamendua eta lantze prozesua Prozesuaren kalitatearen kontrola eta irizpide metodologikoen minimo bat betetzea egiaztatu. Beharrezkoa izanez gero, koordinatzailearen rolari laguntza ematea

**Taula 2 Ekintza Planen exekuzioaren ebaluaketan parte-hartzen duten eragileen rolen esleipena laguntza integratuan**

*Iturria: laguntza motaren arabera egindako moldaketa, Euskadiko udaletan Tokiko Agenda 21-en ekintza planen urteko Programaziorako eta Ebaluaziorako gida metodologikoaren taula oinarri modura hartuta.*



#### Irudia 4 Ekintza Planaren ezarpen-mailari buruzko ebaluazio prozesuaren fase desberdinen oinarritzko eskema

*Iturria: Euskadiko udaletan Tokiko Agenda-en ekintza planen urteko programaziorako eta ebaluaziorako gida metodologikoa*

Prozesu honen barruan, Planeko ekintza bakoitzaren egoeraren ebaluazioa burutzeko ahalik eta informazio objektiboena izateko, ebaluatzen den denbora tartean burutu diren eta Planeko ekintzen exekuzioan nolabaiteko eragina izan duten jarduerak konkretu guztiei buruzko informazioa jasotzen da.

Ebaluazio epean (urtero) ekintza bakoitza aurrera eramateko burutu diren **jarduerak** konkretu guztiak identifikatu ondoren, bakoitzarentzako **exekuzio-maila** ezartzen da. Honetarako, jarraian azaltzen diren kategoriak hartzen dira kontutan:

- Aurreikusita(Au)
- Hasita (H)
- Amaituta (Am)
- Jarraipenekoa (J)
- Puntuala (Pu)

Jarraian (7. pausoa), ebaluatzaile taldeak ekintzaren egoera globala ebaluatuko du, honetarako, exekutututako jarduerak eta aurretiaz ezarritako irizpideak kontutan hartuko direlarik. Balorazio honetan oinarrituz, ekintza bakoitza ondoren aipatzen diren kategorietan klasifikatzen da:

- Hasteko(H)
- Hasita (Ha)
- Aurreratuta (Au)
- Amaitzen (Am)
- Amaituta (At)

Ekintza bakoitzarentzako egoera bat definitu ondoren, egoera bakoitzari balore numeriko bat ezartzen zaio eta honela, **ekintza planaren ezarpen-mailari** buruzko emaitza kuantitatiboak lortzen dira. Datu numerikoak hauek dira :

(H)	Hasteko: 0
(Ha)	Hasita: 25
(Au)	Aurreratuta: 50
(Am)	Amaitzen: 75
(At)	Amaituta: 100

Balore numeriko hauek ekintza bakoitzari ezarri ondoren, Ekintza Planaren ezarpen-maila ondorengo formula jarraituz kalkulatzen da:

$$\text{Ezarpen-maila} = [ [ (H*0) + (Ha*0,25) + (Au*0,5) + (Am*0,75) + (At*1) ] / N ] \times 100$$

Bertan:

- H:** hasteko dauden ekintzen kopurua
- Ha:** hasita dauden ekintzen kopurua
- Au:** aurreratuta dauden ekintzen kopurua
- Am:** amaitzen ari diren ekintzen kopurua
- At:** amaituta dauden ekintzen kopurua

Ebaluazio prozesua dela eta, plan hauek ekintza tipologia desberdinak izaten dituztela aipatu behar da:

- o dibulgazio, formazio eta parte-hartze ekintzak
- o Araudiarekin erlazioa duten ekintza multzoa
- o pizgarri ekonomikoekin zerikusia duten ekintzak
- o ekipamendu eta azpiegiturekin erlazioatutako ekintzak
- o iraunkortasun irizpideak integratzeko ekintzak
- o azterketa eta planak idazteko ekintzak
- o kudeaketa ekintzak

Hau guztia kontutan hartuta, ekintza guztiak ezin dira modu berean aztertu eta bakoitzaren tipologia, ebaluazioa baldintzatu ahal izango du. Aipatzekoa da dibulgazio, formazioa eta parte-hartzea helburutzat duten ekintzak izaera jarraitua duten ekintza bezala definitu ohi direla, emaitzak lortu ahal izateko denboran zehar errepikatu beharreko ekintzak izaten baitira eta ondorioz, ekintza hauek inoiz ez dira amaituta bezala kontsideratzen. Hala ere, emaitzen interpretazio zuzena egin ahal izateko, ekintza jarraituen kopurua emaitzen atalean kontutan hartzen da.

Bestalde, ebaluazio prozesuaren ondorio bezala, MUGI 21 programan eta ondorioz, emaitzetan islatzen diren lau egoera topa ditzakegu:

- o ekintza bat errepikatuta dagoela kontsideratzea, hau barneratzen duen beste ekintza orokorrago bat dagoelako. Kasu honetan, ekintza honetan **EKINTZA BIKOIZTUA** aukera markatzen da MUGI 21 programan
- o burutzen ari den ekintzaren bat onartutako ekintza-planean ez agertzea. Ekintza aurrera eramateko zenbait jarduera burutzen ari badira, ekintza berri hau planean sartu beharko da, honetarako MUGI 21ean **ONARTUTAKO EKINTZA-PLANEAN KONTUTAN HARTZEN EZ DEN EKINTZA** bezala markatuko da

- o ekintza bat birformulatu beharra detektatzea. Gerta daiteke, ekintzaren bat hasieran definitu zen bezala ez exekutatzea eta idazkeran nolabaiteko ñabarduraren baten beharra sumatzea ( eragina, adibidez). Kasu honetan, ekintza birformulatu egiten da eta **BIRFORMULATUTAKO EKINTZA** bezala markatzen da.
- o lehen azaldu den bezala, ekintza bat jarraitua dela kontsideratzean bada, inoiz ez da amaituta bezala kontutan hartuko. Hori dela eta, MUGI 21ean **EKINTZA JARRAITUA** bezala markatzen da eta honela, ekintza jarraituen txostenak atera eta prozesuaren emaitzak interpretatu ahal izango dira.

Planaren moldaketa eragingo duten eta izaera puntuala duten ekintza multzo hauekin jarraitu beharreko prozedura, ondorengoa da: ezagutzera eman eta Udal Batzordean onartu, ekintza planaren onarpen formalaren prozesua errespetatuz.

Azkenik, aipatu daiteke, metodologia komuna aplikatzeak emaitza integratuak lortzea baimentzen duela, Udal bakoitzaren emaitzen batez besteko modura, 2007 programaren kasuan 25 ekintza Planena hain zuzen ere. Batez besteko emaitzak txosten honen emaitza bakoitzaren ondoren aurkezten dira, emaitzen interpretazioa errazteko.

### 3. TOKIKO AGENDA 21EKO EKINTZA PLANAREN EZARPEN MAILARI BURUZKO EBALUAZIO PROZESUAREN EMAITZAK


Jarraian, Ekintza Planaren ebaluaketa prozesutik 2007. urterarte lortutako emaitza adierazgarrienak aurkezten dira. Aurkezten diren datuak MUGI 21 tresna informatikotik atera dira, zenbait kasuetan datuen tratamendu osagarri bat burutu delarik

Dokumentu hau emaitzen laburpen bat izateko asmoarekin landu da eta ondorioz, ebaluaketa prozesutik sortutako informazio guztia aurkeztea baztertu da. Dena dela, eskualdeko Tokiko Agenda 21-aren kudeaketaren arduradunek txosten hau osatu dezakete MUGI 21 tresna informatikotik modu automatikoan atera daitezkeen emaitza-txosten ugarien bidez.

#### 3.1 Planaren ezarpen-maila urteka

Batetik, Ekintza Planaren exekuzio-maila urteen arabera erakusten duen grafikoa dago, Plana ezarri zen urtetik hasi eta 2007ra arte. Ikus daiteke lehenengo urtean ezartze-maila % 14koa izan zela; egia da, hala ere, portzentaje horretan, dagoeneko, lehendik exekutatzen ari ziren ekintzen parte bat sartuta dagoela. Ekintza horiek hasita zeudelako izan da hori, eta, horregatik, diseinatzeko garaian Ekintza Planean sartuta geratu zirelako. 2007an ezartze-portzentajea % 20ra arte igo zen.

Ekintza Planaren exekuzio-maila urtearen arabera




Grafikoa 1 Ekintza Planaren Exekuzio-maila urtearen arabera

*Iturria: Planaren ezarpen-maila urtearen arabera txostenaren datuekin lantaldeak eginda (grafikoa)*

Ondoren datu honen Lurraldearen batez bestekoarekin egindako grafikoa aurkezten da:

### Udalerriko Ekintza Planaren exekuzio mailaren eta Gipuzkoako udalerrien batez besteko mailaren emaitzen arteko konparaketa




**Grafikoa 2 Eskualdeko eta Gipuzkoako TA21-en Ekintza Plana 25 Udalen datuetatik abiatuta**

*Iturria: Planaren ezarpen-maila urtearen arabera txostenaren datuekin lantaldeak eginda (grafikoa), programan parte-hatu duten Udalerrri guztien datuak kontutan hartuta*

Grafiko honetan Udalerrriaren exekuzio-maila aurkezten da urteka, Gipuzkoako exekuzioaren batez bestekoarekin konparatuta. Gipuzkoa mailako batez besteko datu hau 2007an Laguntza Programan parte-hatu duten udalerrien urtekako batez bestekotik lortu da. Udalerrri hauek 25 dira dagoeneko.

Jarraian, Planeko ekintzen ezarpena ebaluatutako azken urtean, 2007an, nola dagoen erakusten duen grafikoa aurkezten da. Grafikoan ikus daiteke Planaren % 40 hasteko dagoela, eta aurreratuta, amaitzen edo amaituta dauden ekintzak guztizkoaren % 16 direla:

### Planeko ekintzen exekuzio egoera ebaluatutako azken urtean (2007)




### Grafikoa 3 Ekintza Planaren exekuzio-egoera ebaluatutako azken urtean (2007)

Iturria: Planaren ezarpen-maila urtearen arabera txostenaren datuekin lantaldeak eginda (grafikoa).

Ondoren, Planeko ekintzen exekuzio mailaren eboluzioa adierazten da:

### Exekuzio-mailaren eboluzioa



	2006	2007
Amaitutako ekintzen %	1%	3%
Amaitzen dauden ekintzen %	0%	0%
Aurreratutako ekintzen %	6%	13%
Hasitako ekintzen %	40%	44%
Hasteko ekintzen %	53%	40%

### Grafikoa 4 Ekintzen exekuzio-maila exekuzioa hasi zenetik 2007 arte

Iturria: Planaren ezarpen-maila urtearen arabera txostenaren datuekin. Lantaldeak eginda (grafikoa).

Grafiko honetan, hasteko dauden ekintzen portzentaia urtez-urte nola aldatzen den ikusi daiteke, modu honetan, urteak aurrera doazen heinean hasteko dauden ekintzek Ekintza Planaren osotasunean duten pisuaren eboluzioa aztertu ahal izango delarik. Kasu honetan ikusten da hasteko zeuden ekintzak % 53 izatetik, 2006an, % 40 izatera pasatu direla, 2007an.

Gainerako mailetan ere azterketa berdina egin daiteke, eta, batik bat, aurreratutako ekintzen bilakaera progresiboa nabarmentzen da. Izan ere, planaren % 6 izatetik, 2006an, % 13 izatera pasatu baitira, 2007an.


Planaren lehentasuna kontutan harturik, lehentasun altuko ekintzetatik zenbat aurkitzen diren gutxienez Aurreratuak aztertu da, ondoko emaitzekin:

**Lehentasun ALTUA** duten ekintzen % 27,42, **Aurreratuta**, **Amaitzen** edo **Amaituta** daude 2007ko abenduan.

### 3.2 Ildo Estrategikoen arabeko exekuzio-mailaren analisia

Ekintza Plana osatzen duten Ildo Estrategiko bakoitzean exekutututako portzentaia aztertzea baimentzen duen grafikoa aurkezten da ondoren:

## Exekuzioa Ildo Estrategikoaren arabera (%)



**Grafikoa 5 Ildo Estrategikoen araberako exekuzio-maila**

*Iturria: lan taldeak egindakoa*

Grafiko honek, Ekintza Plana osatzen duten Ildo Estrategiko bakoitzean exekutatuak portzentaia aztertzea baimentzen du.

### 3.3 Ebaluaketa prozesutik abiatuta plana eguneratzea

Metodologiaren aurkezpen eta azalpenean agertzen den modura, ebaluazio prozesuan zehar, Ekintza Plana eguneratzea aholkatzen duten zenbait kasu aurkitu daitezke: udalerrian burutzen ari diren eta ekintza planean kontutan hartu ez ziren hainbat ekintza egon daitezke, edo definitu ziren moduan gauzatzen ari ez direlako birformulatzea beharrezkoa ikusten diren ekintzak edo beste baten oso antzekoak direlako bikoiztuta dauden ekintzak identifikatu daitezke.

#### EKINTZA BERRIAK: Onartu ondoren planean sartuko diren ekintzak

Kasu honetan, Planera gehitu beharreko ekintza berriak hauek dira

EKINTZAREB BEHIN-BEHINEKO KODIGOA	FORMULAZIOA	ONARTU ONDOREN EKINTZA BERRIA GEHITUKO DEN ILDO ESTRATEGIKOA
7.2.5	Enpresa txikietan hausnarketa estrategikoa bultzatu	7. Berrikuntza, enpresen lehiakortasuna eta posizioa mantendu eta hobetu

Taula 3 Aurreikusi gabeko ekintzen zerrenda

*Iturria: Txostenaren datuak: Jardueren laburpen taula.*

#### BIRFORMULATUTAKO EKINTZAK

Ekintzaren erredakzioa udalean egiten ari direnarekin bat etortzeko birformulatzea beharrezkoa izan diren ekintzak:

EKINTZAREN KODIGOA	AURREKO FORMULAZIOA	FORMULAZIO BERRIA
11.2.4	Goiturrera enpresa gehiago erakarri	Goiturrera enpresa eta komertzio elkarteak erakarri

Taula 4 Prozesuaren ondorioz birformulatutako ekintzak

*Iturria: Birformulatutako ekintzen zerrenda txostenetik ateratako datuak*

#### BIKOIZTUTAKO EKINTZAK

Identifikatu diren ekintza bikoiztuak ondorengoak dira

EKINTZAREN KODIGOA	FORMULAZIOA	ONDORENGO EKINTZAREKIN BIKOIZTUA DAGOELA KONTSIDERATZEN DA
12.1.3	Turismo sektorearekin erlazioa sortu eta azalerratu: Goitur eta GATC-aren arteko erlazioak indartu	11.2.4

## Taula 5 Bikoiztuta kontsideratu diren ekintzen zerrenda

*Iturria: Txoteneko datua. Bikoiztutako ekintzen zerrenda*

### 3.4 Ekintza Planaren exekuzioan inplikaturik dauden eragileek izan duten eragina

Ekintza Planaren exekutatu beharreko ekintzak esleitu zaizkie, guztira, inplikaturik 5 eragile, hau da, arlo desberdinetako arduradunei. TA21eko koordinatzaileak ez diren beste eragile inplikaturik Ekintza Planaren exekuzioan duten garrantzia aztertuz (TA21ak Udalean duen zeharkotasuna baloratzeko indize gisa), ikusten da dagoeneko exekuzioa hasita dauden ekintzen % 40 bat datorrela TA21aren arduradun ez diren eragileek parte hartzen duteneko ekintzekin.

### 3.5 Barne komunikaziorako tresna eta dinamika

Eskualdeko Agentziak ez dauka TA21aren ezarpenaren koordinazio tekniko egiteko mekanismo egonkorrik.

### 3.6 Herritarren parte-hartzea sustatzeko tresna eta dinamika

Eskualdeko Agentzian Partaidetza Foro bat dago, alegia, Tokiko Agenda 21aren ezarpen-eta jarraipen-prozesuan herritarrek parte hartzeko erakunde egonkor bat.





Partaidetza Foroan, hala ere, azken 2 urteetan unean uneko bilerak egin dira.

Bileretako funtzio nagusia proposamenak egitea, eztabaidatzea eta adostea da.



Bileretan parte hartzen duten pertsonen batez bestekoa 10-20 bitartekoa izaten da.

#### 4. EMAITZEN LABURPENA ETA ONDORIO NAGUSIAK

Prozesu honetatik ebaluatutako urte bakoitzean Ekintza Planaren ezarpen-mailaren datuak lortu dira. Datu hauek Programan aurretik parte hartu duten beste udalerrien batez besteko emaitzekin konparatuz zenbait ondorio atera daitezke. Ondorio nagusi horiek ondoko taulan laburbiltzen dira.

ASPEKTUA	LABURPEN ETA BALORAZIOA	
<b>PLANAREN EZARPEN-MAILA</b>		
Ezarpen-mailaren joera	<ul style="list-style-type: none"> <li>Ebaluatutako azken urtean Planaren exekuzioan izan den igoera aurreko urtekoarekin erkatuz aztertu den exekuzio-erritmoa <b>negatiboa</b> da. Kasu honetan, ebaluatutako azken urteko igoera % 6koa da, aurreko urtekoarekin alderatuta, hori % 14koa izan baitzen. <b>Balorazioa negatiboa</b> da, izan ere bigarren urtean asko jaitsi baita exekuzio-erritmoa.</li> </ul>	
Lortutako ezarpen-maila	<ul style="list-style-type: none"> <li>Planaren ezartze-maila <b>baxua</b> da, eta exekuzioaren bigarren urtean % 20ra iritsi da. Horrek esan nahi du 5 urterako exekuzio-planentzat ezarritako helburu desiragarri komunaren azpitik dagoela.</li> </ul>	
Ezarpen-maila Gipuzkoako udalerrien batez bestekoarekin konparatuta	<ul style="list-style-type: none"> <li>Planaren exekuzio-maila Gipuzkoako batez bestekoarekin erkatuz gero, ikus daiteke herriak GLHaren batez bestekoa baino exekuzio-maila txikiagoa duela. Exekuzioaren bigarren urtean, udalerriak Gipuzkoako beste udalerrietako batez bestekoaren exekuzio-maila (% 24) baino emaitza <b>pixka bat baxuagoa</b> (% 20) lortu du, denboraldi berean. Eta gainera, bere urteko <b>hazkunde-igoera</b> (% 6) batez bestekoa (% 8) baino txikiagoa da, exekuzioaren bigarren urtean.</li> </ul>	
Ekintzen garapen mailaren eboluzioa	<ul style="list-style-type: none"> <li>Ebaluatutako bi urteetako ibilbidean ikusten da <b>hasteko dauden ekintzek jaitziera progresiboa</b> izan dutela, % 53 izatetik, 2006an, % 40 soilik izatera etorri baitira, 2007an. Bestalde, aurreratuta, amaitzen eta amaituta dauden</li> </ul>	

ASPEKTUA	LABURPEN ETA BALORAZIOA	
<p>Lortutako ekintzen garapen maila eta etorkizunerako aurreikuspenak</p>	<p>ekintzak % 7 izatetik, 2006an, % 16 izatera pasatu dira, 2007an. Eboluzio hori, bi kasutan, oso positiboa da.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>Nabarmentzekoa da ebaluatutako azken urtean, amaituta, amaitzen eta aurreratuta dauden ekintzak guztira % 16 zirela. Horrek, eta ekintzen % 44a 2007an jadanik hasita egoteak aurreikusarazten du igoera-erritmoari eutsi ahal izango zaiola hurrengo urtean ere, azken urtekoaren maila bertsuan gutxienez.</li> </ul>	
GAIA ETA LEHENTASUNEN ARABERAKO EZARPEN-MAILA		
<p>Lehentasunezko ekintzen ezarpen-maila</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Lehentasun altua duten ekintzen kasuan, amaituta, amaitzen eta aurreratuta daudenak % 27,42 dira. Maila hori baxua da, aztertutako indize honen GLHaren batez bestekoarekin alderatuta.</li> </ul>	
<p>Ezarpen-maila handiena duten ildo estrategikoak</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Industriako ur industrialei buruzko lerro estrategikoak izan du exekuzio-mailarik handiena, % 100 (zegoen ekintza bakarra burutu da). Ondoren daude Herri/enpresari, Jardueren legezko izapideei, Lan munduari eta turismoari buruzkoak. Horien guztien exekuzio-maila % 50 eta % 32 bitartekoa da.</li> </ul>	
<p>Ezarpen-maila txikiena duten ildo estrategikoak</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Lurralde-antolamenduari buruzko lerroak (% 4ko exekuzio-mailarekin) eta Hondakin arriskutsuei, Gizarte bultzadari eta Etxebizitzari buruzko lerroek izan dute exekuzio-maila baxuena.</li> </ul>	
<p>Ezarpen-maila ertaineko ildo estrategikoak</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>TEPeko gainerako lerroek exekuzio-maila ertaina izan dute, zeren % 11 eta % 27 bitarteko exekuzioa izan baitute.</li> </ul>	
ZEHARKOTASUN MAILA PLANAREN EXEKUZIOAN		
<p>Udal eragileen parte-hartze maila Planaren exekuzioan</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Gutxienez hasita dauden ekintzen % 40 TA21eko koordinatzailea ez diren eragileen ardura da, osorik edo partzialki. Horrek esan nahi zeharkakotasun-maila txikia dagoela.</li> </ul>	

ASPEKTUA	LABURPEN ETA BALORAZIOA	
<b>BARNE KOMUNIKAZIOAREN TRESNAK ETA DINAMIKA</b>		
<p>TA21-aren inguruan barne komunikazioa egotea eta komunikazio horren dinamismoa</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ez dago barne-koordinaziorako mekanismorik</li> </ul>	
<b>HERRITARREN PARTE-HARTZE TRESNAK ETA DINAMISMOA</b>		
<p>TA21-aren inguruan herritarren parte-hartzea egotea eta komunikazio horren dinamismoa</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Herritarrek parte hartzeko foro bat dago, noizbehinka biltzen dena, ekintza-proposamenak eztabaidatzeko xedearekin. Foro hauetan 10-20 pertsonen parte hartzen dute.</li> </ul>	

**Taula 6 Emaizten laburpena eta balorazioa**

*Iturria: Exekuzioaren ebaluazio prozesutik ateratako emaitzetatik landutakoa*

## 5. EKINTZA PLANAREN EXEKUZIOAREN EBALUZIOA BURUTU ONDOREN AURRERA ERAMAN BEHARREKO PROTOKOLOAK

Tokiko Agenda 21eko ekintza plana, udalaren marko estrategikoan 4-5 urtetarako erreferentziako dokumentua da eta beroren operatibitatea bermatzeko, beharrezkoa ditu hainbat kudeaketa tresna. Ezarpen mailaren ebaluazioaren prozesu hau tresna horietako bat da, eta prozesu honi eta ekintza plana Udal Batzordean onartu izanari koherentzia eman nahian, ondorengo lerroetan Udalean jarraitu beharreko pausoak aipatzen dira, hauen helburua prozesuan zehar ondorioztatu diren aldaketak ekintza planean integratu daitezela:

### 5.1 Ekintza planaren ezarpen-mailaren ebaluazio prozesuaren ondorioz proposatutako ekintza planeko aldaketak Udal Batzordean onartuak izateko ekintza protokoloa

Prozesua aurrera eramateko metodologiaren deskribapenean aipatu den bezala, prozesuaren emaitza bezala, hasierako Ekintza planaren hainbat moldaketa sortu dira, hala nola:

- Exekuziorako zenbait erantzukizunetan eta/edo jatorriz esleitutako ekintzen jarraipenean aldaketak izan dira
- Ekintza batzuk birformulatu egin dira
- Zenbait ekintza berri proposatu dira
- Zenbait ekintza errepikatu egiten direla kontsideratzen da

Kasu hauetan, dagokion udal batzordean aurkezteko eta onartzeko ondoren aipatzen den protokoloa jarraitzea aholkatzen da:



	MUGI 21eko TXOSTENAK	AURKEZPEN MODUA	ONDORENGO LANA
<b>Ekintza berriak</b>	1. Modulua: ekintza planaren kudeaketa/Ekintza plana kontsultatzea, eguneratzea eta bistaratzea/Txostenak-1: <i>-Ekintzen deskribapen-fitxak</i> (proposatu diren ekintza berriak atera, honetarako sortu den ildo berritik)	Ondorengo definizio minimoarekin aurkeztu: -Izenburua -Deskribapena -Gaia -Erantzukizuna -Lehentasuna -Exekuzio epea	Onartu ondoren, ekintza hauek planean dagozkien lekuan jarri, gaia kontutan hartuz eta Ekintza planean onartuta ez dauden ekintzen lerroa ezabatuz
<b>Birformulatutako ekintzak</b>	2. Modulua: Planaren ezartze-mailaren ebaluazioa/Txostenak: <i>-Birformulatutako ekintzen zerrenda</i>	Ondorengo definizio minimoarekin aurkeztu -Aurreko izenburua -Izenburu berria  Karakterizazio atalak moldatu, beharrezkoa den kasuan	
<b>Bikoiztutako ekintzak</b>	2. Modulua: Planaren ezartze-mailaren ebaluazioa/Txostenak: <i>- Bikoiztutako ekintzen zerrenda</i>	Bikoiztuta dagoen ekintzaren izenburua aurkeztu	Dagokion udal batzordean ekintza bikoiztutzat onartu ondoren eta dagokion transfer-a gordeta, ezabatu, kontutan hartuz ekintza honetan jarduerak sartuta badaude, hauek errepikatuta dagoen ekintzaren barne sartu behar.
<b>Erantzukizunen aldaketa</b>	-1. Modulua Ekintza Planaren kudeaketa/txostenak-1/Aurreko Ekintza Planaren laburpen taula -1. Modulua Ekintza Planaren kudeaketa/Txostenak-1/Eguneratutako Ekintza Planaren laburpen taula	Aldaketak udal organigraman badira: organigrama berriaren aurkezpena Aldaketak aurreko bertsioaren indefinizioaren ondorioz egin badira, ardurak gehiago zehaztearen onura eta beharren azalpenak eman	

Taula 7 Dagokion udal batzordean ebaluazio prozesuaren ondorioz identifikatu diren aldaketak onartzeko protokoloa

*Goierriko Tokiko Agenda 21aren Ekintza Planaren exekuzioaren ebaluaketa txostena-2007*

*Gipuzkoako Iraunkortasun Behatokia-TA21eko Ekintza Planen exekuzioaren ebaluaketei Laguntza Programa-2007*

---

## 5.2 Datuak gordetzeko segurtasun protokoloa

Burutu den prozesuan zehar, jarraian III. Anexoan agertzen den kopiak gordetzeko protokoloa hiru une konkretutan, TA21eko koordinatzaileari aplikatzea (eta IHOBE-ra bidaltzea) eskatzen da:

- 1.- Ebaluazio prozesuko datuak sartu baino lehen, ekintza plana onartu zen moduan gordeta dagoela ziurtatzeko
- 2.- Ebaluazioaren datuak MUGI 21ean sartzeko prozesua amaitutzat jotzen denean, hau baita aurreko atalean aipatu bezala Udal Batzordera eramango diren txostenak ateratzeko bertsioa.
- 3.- Aurreko atalean azaldu den protokoloa aplikatu ondoren, hau da, aldaketak egin ondoren.







**Gipuzkoako Foru Aldundia**  
**Diputación Foral de Gipuzkoa**

Garapen Iraunkorreko Departamentua  
Departamento de Desarrollo Sostenible